

BADMINTONEKO BERARIAZKO ARAUAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren izena.

BADMINTON

2. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren joko-arauak.

EZ DAGO ALDAKETARIK

3. Kirol federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduketa-arauak.

Norberaren luma-bolak erabiltzea beroketan pistan, eta amaitutakoan berriro biltzea, erraketa-poltsan zuzen gordez. Partidara deitzen duten jokalaria, lehendabizi, pistara sartzeko ibilbidetik urrunen dagoen pistaren aldean kokatuko da. Pista-aldaketa sarearen azpitik egingo da, pistaren erdian. Lehendabizi, seta irabazi duen edo irabazten joaten den jokalaria igaroko da. Bestea, berriz, bere erraketa-poltsaren ondoan zain egongo da, aldaketa egin arte. Atsedendietan, aulkitik emango dira beti jarraibideak, altxatu gabe, eta betiere segurtasun-distantzia mantenduz. LUMA-BOLAK | Kortxoaren aldetik ukituko dira beti. Aldatu behar direnean, sakea egiteko aldera botako dira. Erabilita dauden luma-bolak bertako antolatzailleak adierazitako tokira botako dira.

Kirolariak: ezarritako ibilbidetik sartuko dira, maskara jarrita, pistan berariazko beroketa hasi arte. Ezarritako atsedendietan ez dute maskararik jarri behar.

Pertsonal teknikoa: maskara jarrita egongo dira beti, eta partidaren ezingo dira inola ere altxatu beren lan teknikoa egiteko adierazitako tokitik.

Epailleak eta arbitroak: beti egongo dira maskara jarrita.

4. Parte hartzen duten erakundeek garatzen dituzten entrenamendu eta saioetarako jarduketa-arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten